

DILAN

Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako Gradua.

3. modulua 2017/2018

Tutorea: Aitor Martxueta



MIMAU TALDEA:

Aira Calero, Ainhoa

Beitia Letamendi, Unai

Elorza Isazelaia, Izar

Txintxurreta Maiztegi, Maddi

Usandizaga Altube, Maider

AURKIBIDEA

0. Estimulua aukeratzeko arrazoiak	2
1.Hezkuntza-testuingururuaren deskribapena: Premien identifikazioa eta balorazioa	3
1.1. Pertsonaiak	4
1.2. Pertsonen arteko eta taldeko harremanetan ezartzen diren prozesuen deskribapen	6
1.3.Bazterketa-arriskuen identifikazioa	12
1.4.Hezkuntza erakundeen deskribapena	14
1.5.Irakaskuntza-ikaskuntzako azpiko ereduen identifikazioa	19
2. Esku-hartze uneak	20
3.Ondorioak	23
4.Dilan ikaskuntza-prozesuaren balantzea: pertsonala eta taldekoa	25
5. Bibliografia	31

0. ESTIMULUA AUKERATZEKO ARRAZOIAK

III.Moduluan, gainontzeko moduluetan bezala, diziplinarteko lana egin behar izan dugu. Kasu honetan, hezkuntzaren prozesuen oinarriak landu ditugu egoera zehatz bat aukeratu eta lanketa eginez. Egiturari dagokionez, hasteko, egoera zehatzaren aukeraketaren arrazoiak aipatuko ditugu, ondoren, egoera horren analisisa eta balorazioa egingo dugu gaia zehaztuz, pertsonaiak aipatuz eta hezkuntza testuinguruak azalduz. Jarraian, ezagutzen aplikazioa eta hobekuntzak proposatuko ditugu eta bukatzeko, autoebaluazioa egingo dugu. Guzti honen helburu nagusia, III.moduluko bost ikasgaietako ezagutzak aplikatzea da.

Gure taldearen kasuan, egoera zehatz bezala “Precious” filma aukeratu dugu eta aukeraketa honen arrazoi edo motiboak hainbat izan dira. Hasiera batetik, taldekide batek “Precious” filma proposatu zuen egoera zehatz bezala aukera ona izango litzatekeelakoan eta taldekide guztiok filma ikusi ondoren, argi izan genuen aukera polita izan zitekeela eta horrela hasi genion lanari. Guztiok ikusi genuen “Precious” filmean hainbat gai desberdin landu genitzakeela; hori dela eta egoera zehatz bezala aukeratzeko arrazoi edo motibo garrantzitsuena. Denok ikusi dugun bezala, gaur egungo gizarteak daukan bizitza idealaren pertzepzioari buruz, biolentziari buruz, hezkuntza eredu (eskola arrunten eta alternatiboen) inguruan, ikasketa edo hezkuntzak daukan garrantziaren inguruan, osasunak eta autoestimua daukan garrantziaren inguruan, IHESAren inguruan edo Down sindromea daukaten pertsonen inguruan lanketa sakonak egin ditzakegu besteak beste.

Horretaz gain, filmak hezkuntzarekin lotura zuzena daukanez, guk, etorkizuneko gizarte hezitzaile eta pedagogoko gisa, hobetzeko hainbat proposamen ditugula uste dugu eta hau ere aukeraketaren motibo garrantzitsu izan da.

1. HEZKUNTZA-TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA: PREMIEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Taldekieok aukeratutako egoera errealaren deskribapena luzea izan daiteke, baina aurretik aipatu bezala, pelikulan gai desberdin asko ikusi daitezke eta egoera deskribatzerako orduan ere, filmaren laburpen bat egitea erabaki dugu, gure intereseko gaietan zentratuz.

Precious da gure filmeko protagonista edo pertsonai garrantzitsuena. Hau, 16 urteko neska beltz, lodi eta analfabetoa da. Bere familiarekin batera, Nueva Yorken bizi da. Bere ama, **Mary**, emakume langabea da eta eguneko denbora gehiengoa etxean pasatzen du telebistari begira eta bere alaba fisikoki eta psikikoki abusatuz. Amak, alaba gorroto duela esan dezakegu eta honen arrazoia, Preciusen **aitak**, hau da, Maryren senarra zenak, bere alaba bortxatu izana izan daitekeela uste dugu. Gainera, bortxaketa honen ondorioz, aurdun gelditu zen bi bider eta bi haur izan zituen. Honen ondorioz, ama jeloskor dago eta alabaren kontra egiten du.

Preciusen seme alabei dagokienez, nagusiena “**Mongo**” deitzen da. Down sindromea duen haurra da eta hortik datorkiola bere izena esan dezakegu. Haur honen zainketaren ardura Preciusen **amonarena** da; izan ere, Preciusek beste betebeharrak batzuk ditu; hala nola, ikasketak aurrera eramatea. Hala ere, aurdun gelditzen den unean, ikasketa buruak, eskola alternatibo batera joateko proposamena egiten dio Preciوسي, haurrak izatearen ondorioz ikasketak aurrera eramateko zailtasunik ez izateko.

Eskola alternatiboko irakaslea, **Blue Rain**, denboraren poderioz gure protagonistaren bidelagun bihurtzen da. Honen laguntzarekin, idazten eta irakurtzen ikasten du eta filmaren momentu batean ere, bere etxeko ateak irekitzen dizkio.

Gizarte langileek ere lan handia egiten dute film honetako familiako kideekin. Izan ere, protagonistaren bigarren semea, **Andul** jaio ondoren, etxera itzuli eta amarekin izandako eztabaida eta jasotako biolentziak Preciusen bizitzan eragin zuzena izaten dute. Guzti horren eraginez, semearekin batera etxetik ihes egitea erabakitzen du.

Denboraren poderioz, IHESA gaixotasuna dela eta, Preciusen aita hil egiten da. Une horretan konturatzen da protagonista berak ere IHESA pairatzen duela. Izan ere, bere aitaren eskutik bortxatua izan zen. Orduetik aurrera, bere seme alabekin batera, hauen zorientasuna lortzeko asmotan, bien kustodia izanik, aurrera egitea erabakitzen du.

Aurretik aipatu bezala, argi ikusten da hainbat behar daudela familia honetan. Alde batetik, familiako kideen artean inolako afekturik ez dagoela, familiaren babesa benetan garrantzitsua dela uste dugunean. Bestalde, etxean fisiko zein psikologikoki biolentzia dagoela argi dago

eta honek protagonistaren egunerokotasunean eta batez ere pertsonalitatean eragin negatiboa dakar. Beharrak identifikatzen jarraitu behar badugu, argi daukagu hezkuntza alorrean Preciusek hutsune handia daukala, eta hezkuntzak benerako garrantzia duela egunerokotasunean. Gainera, aipatzekoa ere bada lagunek daukaten garrantzia. Preciusek, hasiera batean, lagunik ez izatearen ondorioz, ez duela inoren babesik ikusten da, baina denboraren poderioz, lagunak bere bizitzan tokia hartzen joaten dira bere pertsonalitatean positiboki eraginez.

Laburbilduz, esan dezakegu, hainbat premia identifikatzen ditugula aukeratutako film honetan. Premia guzti hauek pertsonarengan eragin zuzena dutela ikusi dugu: pertsonalitatean, egunerokotasunean, jarreran ... Horregatik, pertsona gizarteratua izan dadin, premia guzti hauek asetuta egon beharko lirakekeela uste dugu.

1.1. PERTSONAIAK

Pertsonaien deskribapena egiterako orduan, esan dezakegu pertsonai printzipala Precious dela eta ondoren, bigarren mailako pertsonai gisa, bere familiako kide, irakasle, gizarte langile eta lagunak izendatu ditugula.

Precious protagonista deskribatzen hasteko, 16 urteko neska estatubatuarra dela esan dezakegu, azal beltzekoa, obesitate arazoak ditu eta formakuntza maila baxua. Horretaz gain, esan beharra dago, bi seme dituela bere aita biologikoaren eskutik bortxatua izaren ondorioz. Gainera, komunikazio arazo larriak ditu, baita zenbait gabezi gizarte trebetasunetan; izan ere, bere berdinkideekin modu agresiboan defendatzen da. Auzo marjinal batean bizi da eta bere familia, bere amak eta berak osatzen dute. Egoera familiarra oso konplexua da, izan ere amaren partetik, tratu txarrak jasotzen ditu. Tratu txar hauek gainera, modu ezberdinetan pairatzen ditu: fisikoa, momentu oro pairatzen ditu eraso eta jipoiak, tratu txar psikologikoak ere jasotzen ditu, izan ere bere ama irain, mespretxu eta mehatxu bidez komunikatzen da bere alabarekin. Abandonuari dagokionez ere, abandonu fisikoa pairatzen du (alimentazioa, babesa edo medikazioari dagokionez, abandonu kognitiboa (heziketa) eta emozionala (maitasun edo afektu falta). Etxeko lanak egiteko ere esplotatu egiten du amak eta jarrera antisozial edo autosuntsitzailak ditu Preciusek. Aita biologikoaren partetik ere, abusu sexualak jasotzen ditu txikia zenetik eta honek, IHESA gaixotasuna eransten dio.

Bere egoera sozio ekonomikoari dagokionez, argi dago pobrezia egoeran bizi dela ez baitute etxean diru sarrerarik, bere ama langabezian dago eta gainera, marjinazio sozial egoeran bizi da. Oinarrizko beharrak ez ditu asetuta, osasuna, hezkuntza, edo afektua izan daitezkeen bezala.

Beraz, esan dezakegu filmeko protagonista baztertze prozesuan egon daitekeela batik bat, pelikularen hasieran. Izan ere, filma aurrera doan heinean, aurretik aipaturiko zailtasun guzti

horiek hobetzen eta bideratzen joaten da protagonista. Esaterako, ikaskideekin duen harremana askoz irekiagoa da eta hezkuntza ere bereganatzen ari den zerbait da.

Preciousek **amari** dagokionez, pobrezian bizi da ez bai ditu diru sarrerak, egoera hau aldatzeko baina ez du esfortzu handirik egiten, lana bilatzea adibidez. Gainera, isolatze prozesu batean dagoela esan dezakegu, aurretik aipatutako danagatik eta bere jarrera agresibo, antisozial eta desegokiengatik. Beraz, baztertze sozial sakon batean dagoela esan dezakegu. Hori gutxi balitz, ez dauka gaitasun sozialik, ezta komunikatzeko ezta jarrera egonkorrak izateko gaitasunik ere. Berak asmatutako bizitza irreal batean bizi dela ematen du. Gainera, trastorno emozional edo afektuzkoa duela esan dezakegu ez baitu afektuzko jarrerarik inorekin adierazten.

Srta. Rain, eskola alternatiboko irakaslea, gizartean egokituta dagoen emakumea da. Irakasle gisa egiten du lan, ekonomikoki, maila eroso bat dauka, eta bikotea izateak ere egoera emozional nahiz sozial egonkor batean egotea dakarkio. Bere lana oso gustuko du eta pertsonengan interes bizia adierazten du. Preciousek kasuarekin eta bere egoerarekin ere oso inplikaturik dagoela ikusi dezakegu, guztiz inbolukratzen delako eta gizarte hezitzaile baten lana egiten duelako; modu honetan, gaztetxoak bere jarrera negatiboekin apur dezan.

Pelikulako protagonistak alde batera utzita, **talde sozial**etan zentratuko gara eta kasu honetan, familia, eskola eta berdinen taldean zentratuko gara.

Familiari dagokionez, kasu honetan protagonistaren amak, bere alaba erabiltzen du diru laguntza edo laguntza sozialak lortzeko. Hori gutxi balitz, etxeko lanak egitera behartzen du, uneoro abusatuz. Hori horrela, talde honen azken helburua bizi irautea dela esan dezakegu.

Eskola, beste talde sozial garrantzitsu bat da gure protagonistarentzako. Kasu honetan, bi eskola desberdinetaz arituko gara. Hasiera batean, eskola arrunt batera joaten da Precious non bertan, irakaskuntza orokorra jasotzen duen eta bullying-a bezalako jazarpenak jasotzen dituen. Aurrerago, eskola alternatibo batera joaten da eta bertan eskola arruntean jasotzen ez dituen zenbait konpetentzia landu eta bereganatzen ditu; emozioak adieraztearena, besteak beste.

Eskola arruntean zentratuz, bertako helburua jakintza teorikoak transmititzean datza, hori dela eta irakasleak ikasleengan arreta jarri eta hauetaz arduratu beharrean, ikasleek jakintza teorikoak barneratzean arduratzen da. Hori horrela izanik, irakasleak ez du ikasleekin inolako komunikaziorik izaten. Hau da, kasu honetan ez dela Preciousek bizitzaz edo egoera emozionalagatik arduratzen esan dezakegu. Bigarren aldiz haurdun gelditzen denean esaterako, protagonistarekin bere egoeraren inguruan hitz egin beharrean, zuzenean eskolatik kanporatzen dute.

Beste alde batetik, eskola alternatiboa dago, kasu honetan, jakintza teorikoak transmititzeaz gain, gizarte trebetasunak kontutan hartu eta trebatzen dituztela esan dezakegu, baita jarrera desegokiak zuzentzen saiatu eta autoestimua indartzen lagundu ere. Modu honetan, bakoitzak bere barnea ezagutzeko beta du, bakoitzak bere buruarengan sinetsi ahal izateko eta etorkizun bateko helburuei aurre egin ahal izateko. Gure protagonistaren kasuan, eskolak eta bertako irakasleak, eragin zuzena dutela beregan esan dezakegu. Hori horrela, afektuzko lotura bat sortzen da hauen artean.

Beraz, bi eskolen artean izugarritzko ezberdintasunak ikusi ditugula esan dezakegu. Berdinen taldeari erreferentzia egiten badiogu ere, eskola batean edo bestean ezberdintasun nabariak ikus genitzake: Eskola arruntean, esaterako, Precious marjinazio egoera batean aurkitzen da; izan ere, ez dauka lagunik ez eskolan ezta eskolatik kanpoko bere testuinguruan ere (auzoan esaterako). Aldiz, eskola alternatiboan, klase kideak ezagutu eta hauekin esperientziak, emozioak, bizipenak... elkar-banutzen ditu. Hein batean, taldeko kide sentitzen dela esan dezakegu. Hala, berdinen talde honek afektua, pertsonalitatea, laguntza eta erreferentzia dituela oinarri gisa ikus dezakegu. Guzti honek, gure protagonistaren autoestimuan eragin positiboa dauka eta besteekin enpatia ere izaten laguntze dio. Beraz, esan dezakegu, bigarren eskola alternatibo honetako taldekideak Preciousen bizitzan guztiz eragin positiboa izan dutela.

1.2. Pertsonen arteko eta taldeko harremanetan ezartzen diren prozesuen deskribapena hezitzaileek erabilitako estrategiak baloratzuz.

Pertsonen arteko eta taldeko harremanetan ezartzen diren prozesuen deskribapenarekin hasteko eta bertan hezitzaileek erabiltzen dituzten estrategiak baloratzeko, bi ingurune nagusietako harremanak bereiztuko ditugu; eskola publikoan ematen diren pertsonen artekoa eta taldeko harremanak alde batetik, eta eskola alternatibokoak bestetik. Pelikulan ikus dezakegunez, aipatutako bi ingurune hauetan ematen diren harremanak zein hezitzaileen estrategiak zeharo desberdinak dira. Beraz, bi ingurune hauen azterketari ekingo diogu. Horretarako, lehenik eta behin, taula bidez azalduko dugu eta ondoren, bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditugu.

	Eskola arrunta	Eskola alternatiboa
Emozioak	Ez dira lantzen	Lantzen dira
Autoritatea	Irakaslea	Ez dago
Irakaslearen inplikazioa	Inplikazio maila baxua	Inplikazio maila altua
Ikasleen inplikazioa	Inplikazio maila baxua	Inplikazio maila altua
Irakaslearen motibazioa	Motibazio maila baxua	Motibazio maila altua
Ikasleen motibazioa	Motibazio maila baxua	Motibazio maila altua
Komunikazioa	Pasiboa	Asertiboa
Inklusioa	Ez da lantzen	Lantzen da

ESKOLA ARRUNTA:

Eskola arruntean hezitzaileak erabiltzen dituen estrategiak behatzeari ekiten badiogu, irakaslearen eta zuzendariaren estrategiak kontutan izan behar ditugu. Eskola eremu honetan, irakasle eta zuzendariarekin izaten baitu harremana protagonistak. Bi profesional hauekin harremantzen den arren, gehien bat irakaslearen paperean zentratuko gara, egunerokoan berarekin igarotzen baitu denbora gehiena, aldiz, zuzendariarekin une puntualetan soilik egotea egokitzen zaio.

Emozioen lanketari dagokionez, eskola arruntean emozioei ez zaiela garrantzia ematen ikusi dugu pelikulan. Izan ere, ikasgelan ikasleen arlo akademikoa lantzerik mugatzen dira soilik emozioak alde batera utziz. Preciousek eskola alternatiboan kontatzen duen bezala, eskola arruntean inoiz ez zuen hitzik egin. Honek argi erakusten digu inoiz ez dutela irakaslearen emozioak kontutan izaten, ezta nola sentitzen diren edo zer egiteko gogoia daukaten ere.

Preciousen irakaslearekin duen harremana **autoritatean** oinarritzen dela esan dezakegu. Preciousen lotura afektibo bat sortu du irakaslearekin eta afektibitate hori erromantikotasunera bideratu du, hau da, errespetuzko tratua eskaintzen dio figura bakarra du, horrekin loturik bere inguruko afektu falta horrek eraginda, berarekin sortzen duen harreman “faltsu” hori erromantikoa da bere fantasiatan.

Irakaslearen inplikazioari dagokionez, eskola arruntean, irakasleak ez duela bestelako inplikaziorik adierazten esan dezakegu. Hau da, irakasleak inplikazio minimo bat adierazten duela ikusi dugu; izan ere, irakasleak ikasleei materia azaltzen die. Halere, eskola alternatiboan ez bezala, irakasleak ez du ikasleenganako arretarik adierazten, ez da Preciousen egoeraz eta horrek izan ditzaken ondorioez arduratzen. Beraz, bere betebeharra, ikasgaia azaltzean oinarritzen dela ikusi dugu, ikasleenganako arreta guztiz bazterturik.

Ikasleek adierazten duten **inplikazioa** ere guztiz bestelakoa da eskola alternatibokoarekin alderatzen badugu. Ikasleen papera askoz axolagabeagoa dela ikus daiteke, orokorrean, ez dutela ikasgaiarekiko interesik azaltzen ikusi dugu. Halere, esan beharra dago, gainontzeko ikasleen inplikazioarekin alderatuz, Preciousen inplikazio maila handiagoa dela; klasean arreta jartzen du, azterketak gaintitzen ditu eta hori gutxi balitz, ikasketei lehentasuna ematen die.

Inplikazioa eta **motibazioa** elkar loturik datozen aspektuak direla uste dugu, eta horregatik, inplikazio baxua eman denetan, motibazioa ere halakoxea izaten dela ikusi dugu. Hala, eskola arrunteko irakasleak ez duela motibaziorik adierazten ikusi dugu. Filmean, argi eta garbi ikusten da hori, irakaslearen helburua ikasgaia azaltzea baita. Betebehar horrez gain, bistakoa da ez duela bestelako inplikaziorik jartzen klaseak prestatzerako orduan, ikasleekin harremantzerako orduan.

Irakaslearen motibazioa ez ezik, ikasleen motibazioa ere baxua dela esan daiteke. Orokorrean ez baitute ikasgaiarekiko interesik adierazten eta hori gutxi balitz, kasu batzuetan ez diote irakasleari jaramonik egiten. Alabaina, Preciousen kasua oso bestelakoa da; izan ere, gainontzeko ikasleekin konparatuz, bere motibazio maila oso bestelakoa da. Honen arrazoia ordea, irakaslea da. Hau da, irakaslearekin duen maitasunezko sentimenduagatik adierazten duela ikusi dugu motibazio hori.

Jarraituz, eskola arruntean ikasle eta irakasleen arteko **komunikazioari** dagokionez, ez dago komunikazio zuzenik. Honekin esan nahi dugu, irakasleek erabiltzen duten komunikazio mota pasiboa dela. Adibidez, irakasleak Precious zuzendariarengana bidaltzen du momentu konkretu batean honek zerbait esan behar diolako. Gure ustetan, irakasleak zuzenean zuzendariarengana bidali beharrean, gertutasun handiagoa erakutsi ahal zion berak lehenik eta behin Preciousekin hitz eginez. Modu honetan, komunikazio zuzenagoa emango zela uste dugu eta protagonista ere erosoago sentituko zela. Guzti honekin esan nahi dugu, eskola arruntean ikasleak momentu askotan zenbakiak izango balira bezala tratatzen direla pertsona bezala tratatu beharrean.

Aipatutako azken esaldiarekin jarraituz, ikasle denak berdin tratatzen direla ikusi dugu eskola arruntean eta horren ondorioz, **inklusioa** ez dela ematen uste dugu. Izan ere, ikasleen bizitzak, egoerak, sentimenduak eta abar, hau da, aniztasuna ez da kontuan hartzen eta aurretik esan bezala, denak zenbakiak izango balira bezala tratatzen dira eta modu horretan inklusioa ematea ezinezkoa dela uste dugu.

ESKOLA ALTERNATIBOAN:

Eskola alternatiboan hezitzaileak erabiltzen dituen estrategiak behatzen jarraitzeko, Preciousen talde lagunak eta irakaslearen estrategiak aztertuko ditugu. Honekin hasi aurretik,

eskola alternatiboaren testuinguraketa bat egitea garrantzitsua deritzogu. Preciousen haurdunaldiaren berri izan ondoren eta honen gaitasun akademikoak ikusita, eskola publikoko zuzendariak Precious eskola alternatibora joateko konbentzitzen saiatzen da. Amaren iritziari eta debekuei jaramonik egin ez eta Preciousen eskola berri horretara joatea erabakitzen du bertan, Blue andereinoak, gure protagonistaren bizitzan eragin handia izango duena, ezagutzeko aukera duelarik.

Eskola alternatibo honen helburua eduki teorikoak transmititzeaz gain kompetentzia sozialak irakatsi, jarrera kaltegarriak zuzendu, ikasleen autoestimua, eta hauen autonomia handitzea bilatzen du. Aipatu beharra dago, helburu horiek lortzeko bidea metodo humanista batean (egunerokoak, hausnarketak eta irteerak) oinarritzen dela. Beraz, esan daiteke eskola sozial bat dela eta Blue andereinoak Gizarte Hezitzaile baten perfilaren arabera jokatzeko duela. Aldi berean, Preciousen afektibitate harreman bat dauka honen orientatzailea ere badelarik.

Esan bezala, Blue irakasleak, Gizarte Hezitzaile baten perfil profesionala hartzen du; bere komunikazioa jarrera asertibo eta aktibo batean oinarritzen da (entzute aktiboa, hausnarketa bultzatzea, kritikotasuna..) eta aldi berean, ikasleekin, muga jakin batzuk ezartzen ditu baina ez du eskola arrunteko autoritadedun irakasleak bezala jokatzeko. Honen adibide argi bat dugu Precious eskola alternatibora joaten den lehen egunean, honek bere bizitzaren kontakizunak kontatzen ditu eta gehiengoak negatiboak ditu. Irakasleak estrategia oso interesgarria erabiltzen du Preciousi berak dituen gauza positiboak kontatzeko animatuz. Preciousen ez du ezaugarri positiborik aurkitzen beregan, baina azkenean irakasleak bere taktika desberdinak erabiliz eta Preciousen emozioak kontutan hartuta, bere alderdi positiboak ateratzea lortzen du.

Beraz, esan dezakegu eskola arruntarekin konparatuta eskola alternatibo honetan, eta batez ere Blue andereinoak, ikasleen **emozioak** lantzen direla. Andereinoak erabiltzen duen emozioak lantzeko moduetako bat, goizero ikasleei egunerokoa idazteko eskatzea da beraien emozioak azaleratzeko aukera emanez. Blue andereinoak aldi berean, bere emozioak ere azaleratzen ditu emozioen normalizazioa eta enpatia ikasleekin landuz.

Irakasleak bere gain hartzen duen **autoritatea** ere ez da eskola arruntean bezalakoa. Argi dago irakasleak autoritate puntu bat izan behar duela baina Blue irakaslearen kasuan azalpenak ematean edo egin beharrekoak agintzerako orduan, hein batean, autoritatea erabiltzen duela esan daiteke, baina beharrezko momentuetan soilik. Honetaz gain, esan beharra dago irakasleak erabiltzen duen autoritatea ez dela irakasleek askotan bereganatzen duten boterearekin lotzen, baizik eta seriotasunarekin eta irakasle-ikasleen arteko errespetuarekin du zerikusia. Eskola honetan irakasleak duen **inplikazio** maila ere beste eskolako irakasleekin alderatuz, altua da. Preciousen egoera ezagutzen duenean esaterako, asko inplikatzeko da honen bizi kalitatea hobetzen. Hori argi ikusten da Preciousen bigarren umea izaten duenean, etxean amak sekulako jipoia ematen dio eta Blue bere ikasle eta honen semearentzako etxebizitza bat lortzen saiatzen da. Irakasleak ez ezik, bertako

ikasleek ere inplikazio maila handia dute eskola honekiko. Izan ere, bertara bakoitza bere arrazoiengatik doa baina denek helburu berdina dute. Bertako irakasleak, Blue-k egunerokoa idazteko bidaltzen die behin eta berriz eta pelikulan ikusten da nola ikasle guztiek egiten duten irakasleak esandakoa, oso gogotsu gainera.

Eskola alternatiboko ikasgelan dagoen barne-kohesioa eta konfiantza ere zeharo ezberdina da. Preciousek eskola arruntean bere ikaskideekin zuen harremanarekin alderatzen badugu. Preciousen bigarren haurra jaiotzen denean adibidez, bere gelakideak bisitan joaten zaizkio ospitalera eta ondoren ere umea zaintzen dute momentu puntual batzuetan. Guzti honek gure protagonistaren bizitzan eta zorientasunean eragin positiboa dauka inoiz ez baitu izan modu horretako lagunik.

Motibazioa helburu bat lortzeko asmoarekin jokabide bat hasi eta mantentzeko prozesua da. Inplikazioarekin lotura zuzena daukala esan dezakegu eta hau eskola alternatiboan argi ikusten da bai irakasle eta baita ikasleen artean ere. Aurretik aipatu bezala, irakaslearen epe luzerako helburua bere ikasleak zoriotsu izatea da eta horretarako epe motzeko helburuak markatuko ditu. Adibidez irakurtzen eta idazten ikastea, emozioak azaleratzen ikastea, ondokoekin komunikatzen ikastea eta abar. Epe horretan Blue irakasleak bere ikasleen ikaskuntza prozesuarekiko eta bizitzekiko inplikazio eta motibazio handia jartzen duela esan daiteke. Izan ere, bere helburua ikasle horien etorkizuneko aukerak zabaldu eta hauen bizitzak hobetzea bilatzen du.

Aurretik aipatutako epe osoan, irakasle eta ikasleen artean **komunikazioa** ezinbestekoa da. Gogorarazteko, komunikazioa informazioa transmititzea da, hitzen bitartez, ala ez hitzeko komunikazioaren bitartez. Komunikazioa egoteko derrigorrezkoa da gutxienez bi pertsona eta mezua egotea. Batek informazio hori besteari bidaliko dio eta bigarren horrek jaso. Komunikaziorik ez egotea ezinbestekoa da, izan ere, guztiok ari gara momentu oro informazio jakin bat helarazten, hitzekoa ez bada, gorputz-adierazpen edota keinu bidezkoa izaten baita. Horretaz gain, hiru komunikatzeko era daudela esaten da: agresiboa, asertiboa edo pasiboa. Aztertzen ari garen kasuan, Blue irakasleak komunikazio asertiboa erabiltzen du gehienetan. Komunikazio mota honetan norberaren iritziak eta eskubideak errespetatzen eta adierazten dira besteenak urratu gabe. Aldi berean, Blue irakasleak bere ikasleekin duen harremanean ikusgarria da “feedback” a dagoela. Beste era batera esanda, irakasleak ikasleei lagundu eta irakasten dien bezalaxe, ikasleek ere beren ekarpenak egiten dizkiote irakasleari.

Komunikazio asertiboan jarrera enpatikoak, entzute aktiboa eta errespetua dagoen bitartean, komunikazio agresiboan hauek desagertu egiten dira. Denoi gerta dakigukeen bezala, Blue irakasleari ere hainbat momentu zailtan komunikazio asertibo hori mantentzea kostatzen zaio. Preciousi bere amak jipoia eman ondoren gizarte langileek lo egiteko tokirik lortzea ezinezkoa dela esaten dionean adibidez, komunikazio agresiboa erabiltzen du. Aipatzekoa da gainera, bere ikasleak beraien artean iraintzen direnean komunikazio agresibo bat erabili

beharrean oraindik ere asertiboki komunikatzen dela ikasle guztien eskubideak errespetatuz baina beharrezkoak diren neurriak ezarriz.

Azkenik, eskola alternatiboko **inklusioa** benetan ematen dela uste dugu. Eskola arruntean ikasleak zenbakiak izango balira bezala tratatzen diren heinean, eskola alternatiboan hauen bizipenak, sentimenduak eta egoerak kontutan hartzen dira. Modu horretan, pertsona bezala tratatzen dira eta egunero desberdin gaudela onartzen da. Hau da, egunero bakoitzaren sentimendu, bizipen edo arrazoi desberdinen ondorioz desberdin gaudela onartzen de eskola honetan eta ondorioz, inklusioa ematen da. Adibide garbi bat jartzearen, Preciosek bigarren haurra izaten duenean, ikaskide guztiak berarengana joaten dira bisitan honen beharrak asetuz.

Horretaz gain, filmean zehar zenbait gatazka planteatzen direla ikusi dugu, hori horrela, egoera hauen azterketa txiki bat eta hauen ebazpenak deskribatuko ditugu:

Egoera gatazkatsu ugari hauteman ditugun arren, hiru eszena esanguratsuenetan zentratuko gara; lehenengo biak Precious eta bere amaren artekoan oinarriturikoa eta hirugarren bat Precious eta kalean aurkitzen dituen mutil talde baten artean oinarriturikoa.

Lehendabiziko gatazka, esan bezala, Precious eta bere amaren arteko eszena batean oinarritzen da, non Precious bere haurrarekin etxera itzultzean izaten duten gatazkan oinarritzen den. Amak ez du onartzen Preciosek izandako haurra bere senarra zenarekin izandako erlazio baten fruitu denik; ondorioz, iraindu egiten du emagaldua dela aurpegiatuz. Hori gutxi balitz, erasotua izaten da eta zauriren bat edo beste ere eragiten dizkio. Honen aurrean, Preciosek bere haurra hartu eta etxetik alde egitearen erabakia hartzen du.

Guzti honen oinarria, Precious bortxatua izatean dagoela uste dugu; hau da, Precious bere aitarengandik bortxatua izan da berak 3 urte zituenetik eta horren aurrean amak ezertarako balio ez izanaren sententzia eduki izan du (orain artean izandako harreman afektibo-sexuala nork emango zion galdetzen da, esaterako).

Aukeratu dugun bigarren eszena ere, Precious eta bere amaren arteko gertakizun batean oinarritzen da, ikastetxeko zuzendaria beraien etxera tinbre joka joaten den unean sortzen den gatazkan hain zuzen ere. Zuzendariak tinbrea jo eta berehala esaten dio amak ez uzteko etxera sartzen eta emakume hori ixilarazteko esateaz gain, bertatik bidaltzeko agintzen dio. Une horretan bertan, oso agresibo jartzen da bere ama, Preciousenganako errespetua guztiz galduz eta mota guztietako irainak emanez. Hala ere, esan beharra dago, aurreko eszenan ez bezala, Preciosek hartzen duen jarrera guztiz bestelakoa dela. Hau da, kasu honetan, guztiz isiltzen da eta bere amak esaten dion guztia, hein batean onartzen duela esan daiteke. Nahi duen guztia, nahi duen moduan esaten uzten dio, botere harremana nabarmenduz.

Azken eszenak, berriz, Precious eta mutil talde baten artean gertatzen den gatazkan du oinarri. Kasu honetan ere, filmeko protagonistak irain ezberdinak jasotzen ditu mutil talde honen eskutik (foka bat dela esaten diote, adibidez). Hori gutxi balitz, mutil horietako batek bultza egiten dio eta Preciousek lurrean amaitzen du. Kasu honetan ere, aurrekoan bezala, Preciousek ezer egiten ez duela ikusten da. Irainak onartzen ditu eta ez die inolako erantzun motarik ematen edota jarrera agresiboago bat hartzen; besterik gabe, aurrera jarraitzen du.

Hiru eszena ezberdin hauetan ikusi dezakegu, Preciousek orain arte izandako bizitzak eta jasan behar izan dituen egoerek eragin nabarmena izan dutela. 3 urte zituenetik jasandako sexu erasoek esaterako, zenbait egoeren aurrean amore emateko jarrera hartzea ekarri diotela uste dugu; hau da, egoerari aurre egin beharrean, utzi egiten da eta egoerari aurpegia eman eta ezetz esaten ez dakiela ikusten da. Honen oinarria, besteak beste, bortxaketa hauetan daudela uste dugu. Hori ez ezik, bere amarekin izandako harremanak ere izugarritzko eragina izan duela ikusi da. Izan ere, bere amak ez du Precious errespetatzen eta uneoro ari da iraintzen (ez duela ezertarako balio esaten dio, emagaldu bat dela aurpegiratzen dio ...). Hori horrela, uneoro mota honetako irainak jasotzen dituen pertsonak eraginak dituela ikusi dugu.

1.3. BAZTERKETA-ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA

Atal honetan bazterketa-arriskuen inguruan hitz egingo dugu, baina horretarako garrantzitsua iruditzen zaigu, lehenik eta behin, bazterketa zer den azaltzea..

Gizarte-bazterketa, marjinazioa edo esklusioa bezalako hitzekin lotu ohi dugu. Hala ere, definizio bat emate aldera, gizarte-bazterketa pertsona batek edo pertsona talde batek gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea eskuratzeko jasaten dituzten oztopo sozial, politiko eta ekonomikoen multzoa dela esan dezakegu. Hau, kasu askotan, gizartearen sisteman modu egokian ez integratzeagatik gertatzen da. Egoera honetan, gizartearekiko loturak hausteko joera nabarmentzen da eta askotan, isolamendua dakar. Modu honetan, gizartearen zatitu egiten da, gizartearen eremutik kanpo geratzen diren kolektiboak sortuz.

Bazterketa-arriskuan egon daitezkeen kolektiboak oso anitzak dira. Pelikulan ikusten den bezala, pobrezia, inmigrazioa, loditasuna, familia eredu, adimen urritasuna dutenekiko diskriminazioa... Ondorengo puntuetan, landuko ditugu bazterketa hauek sakonago.

Pelikulako protagonista bazterketa egoera batean aurkitzen da. Hau, bere bizitzaren alderdi ezberdinetan hauteman dezakegu; hala nola, familian, eskolan, kalean ... Bera bizi den testuingurua kontuan hartu behar dela uste dugu, izan ere, auzo marginal eta pobre batean bizi da. Horretaz gain, bere familiako egoera ere kontuan hartzekoa da. Preciousen aitak bortxatu egiten zuen eta hala bi haur izan ditu berarekin. Bere amak ere ez dio inolako babesik ematen, are gehiago, tratatu txar fisiko eta psikikoak momentu oro jasotzen ditu bere amaren partetik.

Esan bezala, **pobrezia** bazterketa pairatzeko faktore arriskutsu bat izan daiteke, izan ere, gizartean integrazeko zailtasun handiak dakar pobrezia eta ondorioz pertsona edo kolektibo askok pobrezia egoeran bizitze hutsagatik bazterkeria pairatzen dute. Hau pelikulan argi ikusten da, familia auzo marginal batean bizi da ez duelako diru iturririk, janari azkarra jaten dute askotan ez dutelako bestelakorik erosteko dirurik beste gauza askoren artean. Baina egoera honi aurre egiteko, tamalen gure protagonistaren ama ez da saiatzen lana aurkitzen.

Inmigrazioa ere bazterkeria pairatzeko faktore izan daiteke kasu askotan. Gaur egun oraindik ere, arrazismoa toki askotan dago eta Preciousek eskolan ere tratatu txarrak jasotzen ditu bere azal koloreagatik. Honekin batera, lodi dagoelako ere, eskolan eta etxean ere iraindu egiten dute, beraz, **loditasuna** ere faktore izan daiteke bazterkeria jasotzeko.

Bazterkeria pairatzeko faktoreekin jarraitzeko, garrantzi handia hartzen du gure protagonistaren **famili ereduak**. Izan ere, aurretik aipatu dugun bezala familia eredu edo estruktura ez da bat ere aproposa. Aitak alaba bortxatzen du eta bi ume dituzte, ama egoera honegatik jelskor, alaba jo eta iraindu egiten du. Precious eta bere aitak izandako ume batek donw sindromea dauka eta horregatik ere, familiak diskriminatu egiten dute umea “Mongo” deituz. Hau da, familiak ere, etxeko kide batek adimen urritasuna izateagatik diskriminatu egiten dute. Guzti honegatik, Preciousek ez du bizimodu erraza izaten eta bere jarreraren eta egunerokotasunean eragin handia dauka bere famili ereduak. Autoestimua baxua dauka, ez du hitz egiten eskolan, triste dago eta abar.

Laburbilduz, aipatu ditugun faktore hauengatik, argi esan dezakegu gure pelikularen protagonista eta bere familia bazterkeria prozesuan dagoela. Eskolan ere, izugarritzko **bulling**-a jasotzen du Preciousek. Aipatu bezala ez dauka inolako autoestimurik, guztiz baliogabetuta dago eta eskolako kideek arrazoi desberdinengatik iraindu egiten dute gaztea.

Aurretik aipatu dugun bezala, Precious Nueva York-eko **auzo marginal** batean bizi da bere familiarekin batera Harlem auzoan. Pelikulako irudietan ikusi dugun bezala, jakin dezakegu bizi diren etxebizitza oso zaharra dela eta familia asko bizi direla beraiek bezalako eraikinean. Kaleak zikinak dirudite, umeak bakarrik jolasten dute kanpoan, pobrezia sumatzen da eta horrek askotan dakarren delinkuentzia ez da ikusten baina baliteke. Esan dezakegu, gizarte testuinguruak ere ez duela laguntzen eta hau ere bazterketa gune dela.

Beraz, auzo marginal batean bizitzeak, inolako diru sarrera gabe, familia eredu desestruturatu batean eta biolentziarekin, baztertze prozesuan dagoela familia esan dezakegu argi eta garbi.

1.4. HEZKUNTZA ERAKUNDEEN DESKRIBAPENA HEZKUNTZA ERAKUNDE BATEN INGURUAN INFORMAZIOA LORTZEA GAI HAUEI BURUZ

Aurretik beste puntuetan aipatu dugun bezala ere, Precious pelikulan ageri diren bi hezkuntza erakundetan zentratu gara; eskola arruntean eta eskola alternatiboan. Atal honetan, bi hezkuntza erakunde hauen deskribapena egingo dugu, modu honetan hauen inguruko informazioa lortuko dugu. Alde batetik erakunde hauen helburuak zeintzuk diren zehaztuko ditugu, ondoren AMIA teknika erabiliz bi eskola hauen indargune eta ahuleziak identifikatu eta konparatuko ditugu, gainera eskola bakoitzaren organigrama egingo dugu eta bertan dauden baliabide ekonomiko, giza eta materialak identifikatuko ditugu. Behin informazio hau daukagunean, garrantzitsua iruditzen zaigu eskola edo hezkuntza erakunde hauetan dauden hobekuntzak aipatzea.

Eskola arruntaren helburuak:

Eskola arruntaren xedeak Estatu Batuetan eta hemen ditugunak ez dira oso ezberdinak. Eredu honen xede garrantzitsuena ikasleen oinarrizko jakintza akademikoa lortzea dela esan genezake, garapen kognitiboa bakarrik bultzatzen da, garapen osoaren inguruan ezin genezake hitz egin hezkuntza sistema hauetan. Hori horrela, garapen indibidualean zentratzen dira hau baita eskola arruntaren helburu eta modu horretan ikasle bakoitzak emaitza akademiko onak lortzea.

Eskola alternatiboaren helburuak:

Eskola alternatiboak dituen xedeak eta helburuak eskola arruntekoekin zeharo ezberdinak dira. Eskola eredu honek hainbat lehentasun edo oinarri biltzen ditu eskaintzen duen hezkuntza prozesuan. Pelikulan ikusgarria den bezala, Blue irakaslearen pedagogian gailentzen den irakaskuntza eredu guztiz humanista da, hau da, bere ikasleen garapen pertsonalari ematen dio garrantzia handiena. Lehentasuntzat du hauen autonomia eta autoestimua lantzea eta hau ikasle-irakaslearen harremanetan ikus daiteke hauen egunerokotasunean. Halaber, eskola alternatiboaren xede nagusia, eskola arruntak ematen ez dituen aukerak ematea da. Izan ere, bertako ikasle guztiak beraien testuinguru ekonomiko, sozial eta kultural dela eta, eskola arruntean egoteko zailtasunak izan dituztenak dira. Honen aurrean, eskola arruntak baztertzen dituen ikasleei bigarren aukera bat ematen diela esan daiteke, beraien etorkizunaren ikuspegia eta beraien biziak ere hobetuz.

Eskola alternatiboak dituen lehentasunezko xede horiek aurrera eramateko, ikasleen hausnarketa zein talde-kohesioa lantzen ditu. Blue irakasleak bereziki, ikasgela ikasleentzako konfiantzazko eta segurtasunezko eremu bilakatzea du helburu, aldi berean, hausnarketarako nahiz ikasketarako eremu aktibo ere bihurtzen delarik. Ikasleen garapen pertsonala oinarrizko helburu bat den arren, hori osotasunean betetzeko ezinbestekoa da aldi berean, ikasleen garapen akademikoa ere lantzea. Horretarako, ikasleek oinarrizko jakintzak bereganatzea nahi

da, idazten eta irakurtzen ikastea adibidez. Garapen pertsonal horietan sakonduz, Blue andereinoak idazketaren lanketa eta sentimenduen azalera uztartzen ditu ikasleei eguneroko bat idatzi behar dutela esaten dienean. Aipatu bezala, modu honetan ikasgela eta irakaslea bera ere, ikasleen babes-gune bat izatea lortu nahi du hauen sentimenduak azalera, landu eta autoestimua bultzatuz.

AMIA teknika:

Atal honetan pelikulan azaltzen zaizkigun bi eskolen aukerak, mehatxuak, indarrak eta ahuleziak zeintzuk diren aztertuko dugu, hau da, Preciousen azaltzen zaigun eskola ereduak oinarri harturik AMIA teknika landuko dugu. Argi eduki behar dugu lehenik, teknika honek adierazten duena zer den. Bi analisi mota daude, positiboak eta negatiboak ere izan daitezkeenak. Kanpo-analisia dugu lehenik, hemen, instituzioak kanpotik jasotzen dituen eragin positibo (aukerak) zein negatiboak (mehatxuak) azalduko dira. Barne-analisan berriz, eskolak instituzio bezala, bere barne-antolakuntza, burokrazia edota pedagogia zehatzaren inguruan dituen alde positiboak (indarrak) eta negatiboak (ahuleziak) aztertuko ditugu (Promove Consultora e Formación SLNE, 2012).

ESKOLA ARRUNTA:

<u>KANPO- ANALISIA</u>	AUKERAK	MEHATXUAK
	<ul style="list-style-type: none"> ● Oinarrizko derrigorrezko hezkuntza egotea eta beraz, ikasleen eguneroko presentzia izatea. ● Oinarrizko baliabide materialak izatea. ● Gobernuaren zein bestelako instituzioen babesak izatea. ● Langile formatuak edukitzea. ● Aldaketarako erresistentzia. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Inguruneko pobrezia eta ikasleek klase oso baxuko jatorria. ● Familiar erroa duten ikasleen oinarrizko ezagutza falta. ● Ikasleen kanpo-arazo pertsonalak. ● Inguruneko bizi baldintza eskasak. ● Gurasoen arduragabetasuna. ● Gobernutik inposatutako jarraitu beharreko curricula. ● Testuinguru sozial, ekonomiko eta kultural arazotsua. ● Baliabide ekonomikoen falta. ● Gizarte laguntzen ardura falta.
<u>BARNE- ANALISIA</u>	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakasleek beren ikasgaiarekiko duten interesa edo afizioa. ● Ikasle batzuek irakasle edo ikasgai batzuegan aurkitzen duten motibazioa. ● Zenbait langileek ikasleei laguntzeko duten gogoia eta hauekiko hartzen duten ardura pertsonala. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen beharrei egokitu gabeko irakaskuntza edo pedagogia erabiltzea. ● Ikasleek ikasgelatik kanpo bizi duten testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturala kontuan ez hartzea. ● Langileriaren motibazio arazoak. ● Ikasleen motibazio arazoak. ● Ikasleen indibidualizazioa eta garapen kognitiboa soilik bilatzea, ikasleek beharrezko duten garapen pertsonala lehenengo landu gabe.


ESKOLA ALTERNATIBOA:

	AUKERAK	MEHATXUAK
<u>KANPO-ANALISIA</u>	<ul style="list-style-type: none"> ● Oinarrizko baliabide materialak izatea. ● Ikasleen presentzia derrigorrezkoa izan behar, borondatezkoa izatea. ● Eskola publikoko hainbat irakasleen onarpena izan eta gomendatua izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Inguruneko pobrezia eta ikasleek klase oso baxuko jatorria. ● Familiar erroa duten ikasleen oinarrizko ezagutza falta. ● Ikasleen kanpo-arazo pertsonalak. ● Inguruneko bizi baldintza eskasak. ● Gurasoen arduragabetasuna. ● Gobernutik inposatutako jarraitu beharreko curricula. ● Testuinguru sozial, ekonomiko eta kultural arazotsua. ● Baliabide ekonomikoen falta. ● Gizarte laguntzen ardura falta.
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<u>BARNE-ANALISIA</u>	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturala kontuan hartzea. ● Irakasleak ikasleen garapen pertsonalaren beharrei egokitutako pedagogia erabiltzea. ● Irakasleak bere gain hartzen duen ardura eta inplikazio maila altua. ● Ikasleen motibazioa beraien bizitza hobetu eta ikasketak aurrera eramateko. ● Ikasleen garapen pertsonala eta beraien bizitza duina izateko erronka, garapen akademikoa baino garrantzitsuagotzat jotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakaslearen inplikazio maila altuak honen bizitzan eragina izatea. ● Eskolako langile kopuru txikia. ● Gizartean eskolak duen “botere” txikia dela eta, pertsona gutxi batzuek ardura eta lan kantitate handiak hartu behar izatea.

ORGANIGRAMA:

Bai eskola arrunta eta baita eskola alternatiboa hobeto ezagutzeko, bakoitzaren **organigrama** alboan izatea ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, organigrama erakunde baten antolaketa irudikatzeko balio duen diagrama bat da eta erakunde horretako pertsona edo funtzioak nola banatzen diren ikusteko balio digu.

Gure kasuan, eskola arrunt eta alternatiboaren kasuan, biek organigrama estilo antzekoa dutela esan dezakegu. Ondorengo argazkian ikus dezakegun moduan, eskola biak zuzendari irakasle eta ikasleek osatzen dute baina esan beharra daukagu irakasleek eskola bakoitzean funtzio ezberdinak dituztela.



Bi eskoletan protagonistak ikasleak izan arren, irakasleak dituzten funtzioak edo lantzeko ereduak guztiz desberdinak dira. Eskola arruntean alderdi kognitiboa bakarrik lantzen du irakasleak eta bere helburua ikasleak gaituztea da. Eskola alternatiboan ordea, helburua berdina izan ere hau lortzeko bidean ikasle bakoitzaren alderdi emozionala kontutan izaten du. Beraz, esan dezakegu, organigrama berdina izan arren, irakasle bakoitzak funtzio edo lan egiteko modu oso desberdinak dituela eta honek ikasle guztien etorkizunean eragin handia izan dezakeela.

Bi eskolak hobeto ezagutzeko bakoitzak dituen **baliabideak** zeintzuk diren argi izatea ere beharrezkoa da. Giza baliabideei dagokienez, esan dezakegu organigraman ageri diren bezala, batez ere zuzendari, irakasle eta ikasleek osatzen dutela bi eskolak. Horretaz gain, idazkariak ere parte hartu dezake besteak beste baina batez ere, aurretik aipatu bezala, bi eskolak zuzendariak, irakasleak eta ikasleak osatzen dutela argi dago. Baliabide ekonomikoari dagokionez, gaitetik aipatuko dugu ez baitaukagu eskola horien benetako informaziorik. Baina beste erakundeetan bezala, giza baliabideak ordaintzeko, baliabide materiala eta

edifizioa ordaintzeko finantzazioa beharko dute bi eskolek. Horretarako, gaur egun hainbat diru laguntza daude baina esan bezala, guk ezin dugu jakin Precious pelikulan agertzen diren eskola arrunt zein alternatiboan ze baliabide ekonomiko dituzten.

Argi dago toki zein jokabide guztiak hobetu daitezkeela eta horregatik, ondorengo esaldietan bi eskolen **hobekuntzen** inguruan hitz egingo dugu. Alde batetik, eskola arruntean, aurretik behin eta berriz aipatu dugun bezala, ikasleen autonomia sustatzeko hobekuntza handia egin dezakete irakasleek. Ondo dago arlo teorikoan zentratzea baina momentu askotan ikasleen emozio eta sentimenduei kasu egin behar zaie. Bestalde, irakasleen papelean zentratzen bagara, hauek oso autoritarioak direla ere konturatu gara eta hau ere aldatzea ondo legoke. Horretarako, formazioa jasotzea ezinbestekoa dela uste dugu. Enpatia lantzen ikasi behar dute, modu asertiboan komunikatzen eta emozioen lanketa egiten. Modu horretan, ikasleen hezkuntza kalitatea asko hobetuko zela uste dugu.

Eskola alternatiboan ordea, hobekuntzak bestelakoak izan beharko liratezkelakoan gaude. Eskola arruntean ez bezala, hemen, emozioak eta sentimenduak lantzen dira eta aldi berean alderdi teorikoa lantzen da. Irakasleak gainera modu asertiboan jokatzeko du bere ikasleekin eta hauen arteko harremana sendotzen zaiatzeko da. Baina, garrantzitsua iruditzen zaigu ikasle hauek jarraipen bat egitea, batez ere, gizarteratzeko momentuan. Hau da, irakaslearen helburua ikasle hauek gradua bukatzea da eta ondoren gizarteratzea baina gure ustetan, gizarteratze prozesua luzea denez honen jarraipen bat egin beharko litzateke.

1.5. IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAKO AZPIKO EREDUEN IDENTIFIKAZIOA HEZKUNTZA TESTUINGURU DESBERDINETAN.

Precious pelikulan ageri diren bi eskola desberdinetako balore eta ereduak oso desberdinak direla argi daukagu. Eskola arruntean helburua ikasleek lanketa akademikoa egitea da eta hori lortzeko balore teorikoak ematen dira. Eskola alternatiboan ordea, helburua esan dezakegu berdina dela baina helburu hori lortzeko bidea guztiz desberdina. Hau da, ikasle bakoitzaren emozio eta sentimenduak lantzen dira eta balore emozionalagoak lantzen dira, garapen integralari bide emanaz. Adibidez, Preciousi hasiera batean bere burua maitatzeko balorea transmititzen dio eskola alternatiboko ikasleak ondoren bere seme-alabak maitatu ahal izateko. Eskola arruntean ordea, balore hauei ez zaie tokirik ematen eta soilik ikasgaiak gainditzera bideratzen dira ikasleak.

Uste dugu, eskola alternatiboan lantzen diren baloreak ezinbestean landu behar direla ikasleekin, izan ere, balore hauek barneratzeak bizitzan aurrera egiteko tresnak emango dizkie ikasleei. Modu honetan, irakasleek ulertu behar dute, batzuetan, garrantzitsuagoa dela norberaren egoeraren inguruan hitz egitea matematikako ariketak egitea baino. Izan ere, norberaren egoeraren inguruan hitz egiten dugunean balore ezberdinak ari gara lantzen: gure

burua ezagutzea, enpatia, emozioak identifikatzea, gainontzekoekin norberaren sentimenduen inguruan hitz egitea...

Eskola alternatiboko eredia deskribatze aldera, lehenengo egunean egiten duten ikasle bakoitzaren aurkezpena deigarria iruditzen zaigu. Bertan, bakoitzak bere datuak esateaz gain, norberak duen alderdi positibo bat identifikatu eta altuan esan behar zuen. Modu honetan, tontakeri bat ematen badu ere, bakoitzaren burua ezagutzeko parada izan daiteke. Horretaz gain, bakoitzak berari ondo ematen zaion alderdia identifikatzeaz gain ondoko guztiak alderdi hau identifikatu ere egingo dute eta azkenean denak konturatuko dira denok garela zerbaitetan onak. Hau da, denok ditugula gure gure abileziak. Uste dugu, hasierako errefortzu positibo hau oso garrantzitsua dela egunari edo ikasturteari hasiera on bat emateko. Honen garrantzia azpimarratzeko, argi ikusten da nola Preciousen txanda iristen denean hasiera batean ez dakien zer esan eta ondokoak jarraitzeko eskatzen du. Denek bakoitzaren aurkezpena egin ondoren, Preciosek hitza hartzen du eta azkenean bere burua aurkezten du. Honekin argi ikusten da nola eskola arruntean ez duen sekula horrelako lanketarik egin edo bere buruaren inguruan hausnartu. Uste dugu horrelako ekintza xumeak benetan garrantzitsuak direla zure burua ezagutzeko eta batez ere zure buruan aldaketa bat emateko.

2. ESKU-HARTZE UNEAK

Filmean ikus daitekeen moduan, Preciousen eskola bizitzan asko dira honen aurrera pausoak oztopatzen dituzten gatazkak. Hala nola, gelan pairatzen duen bullying-a, etxean jasotzen duen indarkeria, kalean egiten dizkioten erasoak... Guzti honi amaiera jartzeko, esku-hartzeak era askotakoak izan daitezke, baina argi dago, ezinbestekoa izango litzatekeela Precious bizi den gizartean aldaketa sakonak ematea eta beraz, lehenagoko aurre-lanketa bat egitea. Gure kasuan, eskola hartuko dugu esku-hartzeko hezkuntza instituzio oinarrizkotzat, bertatik abiarazitako hainbat esku-hartze proposatuko ditugularik filmean azaltzen zaizkigun gatazketako batzuk ekidin ahal izateko.

Lehenik eta behin, pelikulan ikusgai diren gatazka askoren erroa eskolako helburuetan eta pedagogian dago. Hau da, aurretik azaldu bezala Precious joaten den eskola publikoak ikasleen arrakasta akademikoa soilik bilatzen du garapen pertsonala albo batera utziz. Honen aurrean beharrezkotzat jotzen dugu ikasgelan hezkuntza emozionala lantzea, eskolako ikasle gehienen ingurune sozial kezkarria kontuan hartuz. Modu honetan, eskola ikasleen babes-lekua izatea ondo legoke, bertan beraien arazoak kontatu eta ulertuak sentitu ahal izateko. Aldi berean, ikasleek beraien burua pertsona bezala nola garatu jakingo lukete, momentu oro beraien duintasuna, autoestimua eta eskubideak beraien egunerokoan presente edukiz. Hezkuntza emozionalaren barruan sartzen da halaber, ikasleei hezkuntza hezkidetzaille bat ematea, etxean, kalean edo bestelako lekuetan diskriminazio motaren bat jasotzekotan hauei nola aurre egin jakiteko. Bullying kasuak ekiditeko asmoz, komunikaziorako tresnak zein gai honen inguruko sentsibilizazio tailerrak ikasleekin lantzea egokia ikusten dugu. Ikasleekin landu beharreko bestelako alderdiak dira bizitza duin eta

osasuntsuaren inguruko lanketak egitea (drogen, osasun fisiko zein psikologikoa eta abarren inguruan adibidez).

Ikasleekin hainbat arlo lantzeaz gain, garrantzizkoa eta ezinbestekoa ikusten dugu gainera irakasleekin ere lanketa sakon bat egitea. Ikasleen motibazioa zein irakasle beraiena ere nola lantzeari, bullying-ari edota ikasleei egokitutako pedagogia berriei buruzkoa izan daitezke.

Familia ere hezkuntza komunitatearen parte den eragile garrantzitsu bat da ikasleen hezkuntza bizitzan. Hauekin era askotako arloak landu ditzakegu, izan ere, asko dira haurrak heztearen inguruan ezjakintasun handia duten gurasoak, honek haurren etorkizunean arazo sozial zein psikologiko ugari sortu ditzakeelarik. Beraz, heziketa osasuntsu baten inguruko tailerrak gurasoekin lantzea, baita bullying kasuen zein bestelako arazoaren inguruko informazioa ematea esanguratsua dela uste dugu.

Pelikula honetan, Precious-en kasuan, bi esku-hartze identifikatu ditugula esan dezakegu. Alde batetik, gizarte langileak egiten duen esku-hartzea ikusten da eta bestetik, gizarte hezitzailearekin egiten duena.

Esan dezakegu, gizarte zerbitzuetako pertsona bi asistenterekin bitartez informazioa biltzen, hau analizatzen eta ondoren, baliabide ekonomikoak eskaintzen saiatzen da. Horretarako erabiltzen dituen estrategiak etxean egiten dituen bisitak, egiten duen elkarrizketa eta osatzen duen informe soziala izan da.

Esan dezakegu, estrategia hauek ez diotela askorako balio protagonistari, izan ere, diru-laguntza bat eskaintzen soilik mugatzen dira, bere benetako egoera zein den ondo analizatu gabe. Hala, ez diote begiratzen zein den bere lan egoera, formazioa, amatasun goiztiarra edo obesitateari. Hau da, gizarte zerbitzuetako langileek ez dute Precious-en egoera sakontasunean analizatzen eta ez diote ekiten bere amak erakusten duen beharren atzean dagoen errealitatea erreparatzeari. Horregatik, uste dugu, momentu honetan Precious-ekin elkarrizketak egitea behar-beharrezkoa dela. Izan ere, benetako errealitatea ezagutzeko hor daukate giltza. Benetako esku-hartze bat egiteko hemendik hasi behar dela uste dugu, informazioa bilatzen.

Uste dugu, Precious-en egoera ezagutzeko berarekin elkarrizketak egiteaz gain, oso garrantzitsua dela berarekin soilik egotea, hau da, bere amaren presentziarik gabe. Izan ere, Precious-en amak zuzenki eragiten dio Preciousi eta hau bertan egoteak, egi absolutua ez esatera eramango zuela uste dugu. Gainera, norberaren intimitatea babeste aldera ere oso garrantzitsua da. Horretaz gain, Precious-ekin zuzenean elkarrizketak eginez, Mongoren errealitatea zein den hobeto ezagutzeko aukera izango duela uste dugu, baita bere garapena zein den ezagutzeko ere. Mongoren egoerarekin jarraituz, horrelako egoera batean, benetako errealitatea ondo ezagutzeko, guztiz beharrezkoa litzateke eskolarekin ere jarraipen bat egitea. Hau da, noizean behin gizarte langilea eskolara joatea eta Mongo ea bertan dagoen

ikustea, baita ere zein den bere eskolako egoera: berdinkideekin harremantzen den, eroso ikusten zaion... Honen antzera, gizarte langileak etxean finkatu gabeko bisitak egin beharko lituzke, etxeko egunerokotasuneko egoera zein den ezagutzeko. Izan ere, aurrez finkaturiko bisitekin ez da lortzen benetako egoera ezagutzea, baizik eta gizarte langileak ikusi nahi duen egoera prestatzen dute etxeko kideek. Profesional honek, gai hauetan aditua izanik, uste dugu errealitateak sakonki ezagutzeko gaitasuna izan behar duela eta horretarako, ezinbestekoa da finkaturiko bisitez gain, sorpresaz harrapaturiko bisitak egitea.

Honetaz gain, esku-hartzerako estrategia ezberdinak planteatu beharko liratekeela uste dugu, izan ere, Precious-en egoeran faktore ezberdinak eragiten dute eta ondorioz, guzti hauei ekin behar zaiela ikusten dugu. Hala, formazioaren alorrean, sexu-orientazioaren alorrean, amatasun goiztiarraren inguruan eta osasun-hezkuntzaren alorrean besteak beste, gizarte zerbitzuetatik esku-hartu beharko litzatekeela deritzogu. Izan ere, gizarte zerbitzuetatik jasotzen duten bakarra eta familiari interesatzen zaion bakarra, diru-laguntzak jasotzea da eta ondorioz, horretan jartzen dute interes guztia. Precious-i eta orokorrean familia guztiari, beste hezkuntza errekurtsio batzuk eskaintzeak aurrerapauso handiak emango lizkieke zalantzarik gabe.

ORAINA:

Atal honetan, gatazka jakin bat azaldu ondoren, ikasgelan Precious-ek jasaten duen bullyingaren kasua esaterako, hezitzaile bezala egingo genituzkeen esku-hartzeetako batzuk azalduko ditugu.

Finlandian gaur egun aurrera ematen ari den bullyingaren aurkako metodo bat da KiVa metodoa. Honen helburua bullying kasuak ekidin eta hauei aurre egitea da ikasle prosozialen laguntza baliatuz. Esku-hartze honen oinarria ikasle jakin batzuk (prosozialak izango direnak) formatzea da bullyinga jasaten duten pertsonen hainbat egoeretan lagundu ahal izateko (KiVa Anti-Bullying Program). Esku-hartze hau oso interesgarria iruditzen zaigu eta Preciousen testuinguruan praktikan jartzeko egokia, izan ere, protagonistaren inguruko pertsonai guztiak erasotzaile aktibo edo pasiboak dira, irakasleak barne.

Orain aipaturikoa Gizarte Zerbitzuetako langilearen begiradapean egin dugu eta ondorengo hitzetan gizarte hezitzailearen gorputzean jarriko gara. Gizarte hezitzaileak eskola alternatiboan egiten du lan eta honen bidez egiten du bere esku-hartzea.

Hasteko, talde bezala esan beharra daukagu, pertsona honek egiten duen lana eta burutzen duen esku-hartzea askoz ere gehiago gustatu zaigula Gizarte Langilearenarekin alderatuz gero. Esan daiteke, eskolaren bidez bizitzarako oinarrizko hezkuntzak barneratzen ditugula, baina eskola honen bidez, oinarrizko hezkuntza jasotzeaz gain, bizitzarako beste hainbat trebakuntza ikasten direla esan dezakegu. Beste funtzio hauek eskola bezalako eremu batean jasotzea oso garrantzitsua dela uste dugu.

Eskola honetan, beste hezkuntza estrategia batzuk erabiliz, hala nola egunerokoak, bisita kulturalak, ipuinak... protagonistari, gainontzeko kideei bezala, gogoeta egiteko parada ematen diote. Alor teorikoa alde batera utzita, horrelako ekintza ezberdinen bidez egunerokotasunean beharrezkoak ditugun beste hainbat oinarri barneratzen direla uste dugu. Gainera, modu honetan, gustura sentitzen gara, eroso eta ondorioz ideiak errazago eta hobeto barneratzen ditugu. Gogoetak norberaren egoera zein den ezagutzera eramaten gaitu eta horrela, norberaren egoera hobetzeko zer egin behar dugun pentsa genezake eta hau aurrera eraman. Gainera, horrelako ekintzen bidez, taldeko kohesioa, autoestimua, norberaren bizitzaren protagonista izatea, gizarte trebetasunak barneratzea eta jarrera ezegokiak hobetzea lantzen da.

Honetaz gain, esan beharra daukagu, irakasleak betetzen duen lana asko gustatu zaigula eta berak betetzen duen papera guztiz bat datorrela gizarte hezitzaile baten profilarekin. Izan ere, entzumen aktiboa egiten du, hausnarketara bideratzen ditu ikasleak, autoritatea erakusten du baina ez boterea... Guzti hauek, hezitzaile on batek izan beharreko ezaugarriak direla uste dugu. Azkenik, Precious-i bere etxea eskaintzen dio harrera bezala. Horrelako keinuak pertsona bati buruz asko esaten dutela uste dugu.

3. ONDORIOAK

Behin pelikularen azterketa sakon bat eginda, ondorioak ateratzeko unea iritsi zaigu. Esan beharra daukagu, horrelako lan batean, ondorioen atalak pisu handia hartu izan ohi duela. Oraingo honetan berriz, pelikula batean oinarritutako lana izanik, ondorioak ez ditu horren garrantzitsutzat ikusi. Pelikularen ordezkari kasu erreal baten inguruan egingo bagenu lana beste kontu bat izango litzatekeela esan dezakegu.

Taldean ateratako ondorioetan zentratuz, esan behar dugu lan hau egiten gauza ezberdinak ikasi ditugula, bai pertsonalki eta baita profesionalki ere. Lan honek, pertsonalki, lan egiteko moduan irakatsi digu. Baina, pertsonalki ikasi ditugun kontuan hurrengo puntuan landuko ditugunez, profesionalki ikasi duguna idatziko dugu ondorio hauetan.

Pelikula honek gai ezberdinen inguruan gogoeta egiteko parada eman digu, hala nola: bullying-aren inguruan, familia harremanen inguruan, eskolako funtzioen inguruan, IHESA-ren inguruan... Esan beharra daukagu, gure etorkizuneko lanbidearen hasi berritan gaudela eta ondorioz, oraindik ez dauzkagula hainbat kontu oso argi. Hau da, familia desestrukturatu batekin nola lan egin zehaztea oraindik ez zaigu oso erraza egiten. Gainera, Precious filmak hainbat kontu lantzen ditu aldi berean eta horrek, gai batean soilik zentratu beharrean, denen arteko loturak egitera eramaten gaitu.

Ondorioztatu dugu horrelako egoerak, tamalez, ez direla kasu isolatuak. Ez horixe. Gaur egun bizi garen gizarteak horrelako milaka kasu sortzen ditu eta ondorioz, lan handia daukagu eta

izango dugu etorkizunean ere. Arazo guzti hauek sistematikoak dira, hau da, sistemak sortzen ditu. Sistemikoa dela esaten dugunean, esan nahi dugu, ez dela ausazko zerbait, kasu hauek patroï finko bat jarraitzen dutela eta ez da kasualitatea ere Amerikako Estatu Batuak izatea bullying eta baztertu indize handienetarikoa duten herrialdea izatea “garatuenen” artean. AEBen kapitalismoak sustraiak ondo eta finko bota zituen, “el sueño americano” bezala ezagutzen den fantasia, oraindik gaur egun bizirik jarraitzen du, indibidualismo kapitalistaren erantzuna dirua pilatzea izan da, lana gogor eginda, klase sozialetan gora egitea sinestarazi diote langile klaseari. Langile klase horren borroka bakarra, bozka egiteko momentuan A ala B aukeratzea izan da eta inoiz identifikatuak izan gabe, populismo merkeenerakin engainatzen saiatuak. *“Azken bost urteotan falta izan duguna ez da presidente egoki bat, baizik eta behar bezala antolatutako masa mugimendu bat”* (Angela Davis, 2014). Sistema baten estrukturak eragin zuzena du gure kasuarekin, ematen den “bandalismo” hori bazterketaren aurpegi bat da, baina, kapitalismoa ez da alde biko txanpona, hainbat aurpegi dituen txanpona baizik, pobrezia, lodifobia eta edertasun kanonak, arrazismoa, hezkuntza sistema desestrukturatuak, klase sozialen arteko tarteen anplifikazioa... denak beraiekin interkonektatuak daude eta esan bezala filma honetan ikusgarri ditugu. Hori horrela, uste dugu, gizarte hezitzaile eta pedagogo bezala, estruktura ezberdinak eraiki behar ditugula horrelako kasuak prebenitzeko edo aurre egiteko.

Bestalde, ikusi dugu, horrelako egoera baten aurrean ez dela nahikoa atal edo arlo bati soilik ekitea. Hau da, ez da nahikoa eskola arloan soilik esku-hartzea. Horrelako egoera batean aldaketa bat eman nahi badugu eta aldaketa hau errotik aldatzea nahi badugu, komunitate guztiarekin landu behar dugun zerbait dela uste dugu. Hala, eskolarekin, familiarekin, auzoarekin landu behar dugu. Hasiera batean lehenengo erabiltzailean zentratuko gara, hau ezagutuz eta bere pertsonaiaren inguruko informazioa eskuratuko dugu eta ondoren, bere alboan dauden beste hainbat pertsona edo eta elkarterekin lanketa egingo dugu. Hauen artean, familia, lagunak, eskola, bizilagunak..etab. Aurretik esan bezala, bazterkeria egoeran dagoen pertsona bat bazterkeria egoeran dago arrazoi desberdinengatik eta guk, profesional moduan pertsona horrekin eta ingurukoekin egin behar dugu lanketa.

Amaitzeko, esan dezakegu, Precious pelikula ikustea oso baliagarria dela Gizarte Hezitzaile eta Pedagogiako ikasleentzat. Izan ere, gure etorkizunean lanbide desberdinetan suertatu daitezkeen gai edo lanketa desberdinak agertu izan zaizkigu lanketa hau egiterako bidean. Adibidez, pobrezia, bullyg-a, familia desestrukturatuak, heziketa mota desberdinak, besteak beste. Egoera hauen aurrean nola jokatzeko eta batez ere nola ez erakusten digu pelikula honek, beraz, lanketa oso garrantzitsua dela uste dugu.

4. DILAN IKASKUNTZA-PROZESUAREN BALANTZEA: pertsonala eta taldekoa

TALDEKO BALANTZEA:

Hasiera batean gure artean eztabaida sortu zen, batzuk estimulu erreal bat nahiago zuten eta beste batzuk berriz pelikula. Denok nahiago genuen estimulu erreal bat, baina azkenean pelikula estimulu bezala hartzea erabaki genuen, lan zama dela eta. Estimulu erreal baten gogoarekin geratu arren, Precious filma hautatu genuen, taldekide baten proposamena izan zen eta irakasle batek emandako lista baten barnean ere ikusi genuen. Asko gustatu zitzaigun pelikula izan zen eta momentuan ohartu ginen analisi ugari eratortzeko gai izango ginela, filmak joko asko ematen baitzuen. Analisia, hezkuntzaren alorretik egitea erabaki genuen, azken batean hezitzaile bezala bertan jardungo dugulako etorkizun batean edo talde kide batzuk bezala gaur egun ere. Hala ere, analisi sozial, politiko, feminista... alde batera ez uztea erabaki genuen, gai guztiak bata bestearekin interkonektatuak baitaude, filmean ikusi dezakegun bezala. DILAN-aren prozesuari dagokionez, aberatsa izan da guretzako, agian ez lan motarengatik, lanaren bitartez taldean sortu den dinamika positiboagatik. Momentu askotan lan egitea kosta arren, aurrera egitea lortu dugu eta orokorrean gustura sentitzen gara egindako lanarekin.

Talde hausnarketa egin ondoren puntu batzuk eratortzea erabaki dugu, puntu positiboak gehien bat. Lehenik, lehen esandakoarekin, DILAN honek esfortzua eskatzen duen lan bat izan da eta talde bezala proban jarri gaitu. Uste dugu, gainditu dugula eta talde gehiago batu dela, nahiz eta gure momentu onak eta txarrak eduki, gertatu beharreko zerbait bezala ulertu dugu, gure sentimenduak eta iritziak helarazi egin behar baitira eta bitartean errespetua baldin badago, ikasteko balio digu eta ez bata bestearen kontra jartzeko. Estimulu batetik informazioa eratortzen ikasi dugu eta analisi “sakon” bat egiten ere. Gauza negatibo bat jartzeko, hasiera batean bideo bat egitea pentsatua geneukan, anbizioz heldu genion ideia horri baina beste ikasgai batzuetako lan guztiak edukita ezin izan dugu egin, beraz, guretzat tristura ikaragarria izan da. Pelikula hau asko gustatu zaigula astuna. Gehien bat irudi positibo batekin irten gara, gure buruak egoki ikusi ditugu, batzuetan astuna izan arren ere eta arratsaldeak lana egiten geratu arren.

Hobetu beharreko gauzak asko dira. Lehenik, denboraren kudeaketa hobetu beharrean gaude, agian, hobetu kudeatu izan bagenu denbora estimulu erreal bat hartu izan ahalko genuke. Bigarrenik, beldurrik ez izatea eta benetan gustuko dugunari ekitea, motibazioa altu mantentzeko (azpimarratu nahi dugu Precious pelikula estimulu bezala oso ona izan dela baina agian estimulu erreal bat motibazio gehiagorekin hartuko genuela). Azkenik, lana egiten dugun momentuan denok batera egotea egokia izango litzateke, momentu batzuetan banatuta edo binaka egin behar izan dugulako, denok batera egotean iritzi ezberdinak entzutea erresagoa baita eta lan kohesionatuago bat egin ohi da.

Konklusio bezala, orokorrean sentsazioak positiboak izan dira eta ikasteko baliagarria izan zaigu, baina estimulu erreal bat ez egitearen penarekin geratu gara. Irakasleei ere eskerrak eman behar dizkiegu, momentu oro laguntzeko prest egon baitira zuzenketak, proposamenak ... eginez.

UNAI BEITIA LETAMENDIREN BALANTZEA:

Hautatu dugun estimulua egokia eta gustukoa izan dela uste dut, denok uste arren kasu erreal bat hobe izango zela, ideia hau alde batera uztea erabaki genuen, lan zama handiegia izango baitzen. Badakit lan zamaren desenkutsa, betikoa izan ohi dela, eta guk ere ez dugula oso langile jardun ia moduluaren bukaerarte, baina gauzak batzuk sakrifikatu behar dira, nahiz eta oso gustura hartuko gendukeen. Hala ere, esan bezala, estimulu hau gustora hartu dugu, hainbat langai eskaintzeaz gain, polita ere bazelako. Esan bezala, Preciousek hainbat gai eskaini digu eta azkenean 2 hautatu behar izan ditugu eta gehien bat horietan zentratu. Nire aldetik gehiago gustatuko litzaidake politika estrukturatu baten azterketa egitea eta ondorengo analitiko Preciousen egoera hori aztertzea, adibidez, arrazismoa Estatu Batuetan edo klase sozialen azterketa txiki bat, baina hezkuntza formalaren eta informalaren azterketa beharrezkoa zenez, ulergarria iruditu zitzaidan.

Taldekiei dagokionez, gauzak modu egoki batean igaro dira, esan bezala, nire ustez, gauzak bukaerarako utzi ditugu eta honek bukaerako presioan eragina izan du. Bestalde aurretik lagunak izan da, beharrezko konfidantza ikusi dugu gure artean talde kohesio egoki bat izan dezagun.

Azkenik, autokritika pertsonala egitean, ez presentzian zegoen ikas kideari barkamena eskatu nahi diot, momentu askotan beste lanekin asko kontzentratu gara eta alde batera utzi dugu DILAN-a, kontuan hartu gabe ikaskide hau genuela gure artean eta lan zama garrantzitsua hartu behar izan duela. Ondoren, gehiago eman nezakela uste dut, momentu askotan nagitasunak ito nau eta lanean ari ginean asko hitzegiten dudala ere kontziente naiz. Baina, alde positiboak ere izan dudala uste dut eta nire zatitxo ere txertatu dudala lan honetan.

MADDI TXINTXURRETA MAIZTEGIREN BALANTZEA:

Aurreko lauhilabetetan bezala, honako honetan ere DILAN izeneko lana egin behar izan dugu. Oraingo honetan, estimulu bat aukeratu behar izan dugu eta ondoren honen inguruko lana egin. Esan beharra daukagu, estimulua aukeratzeko orduan, pelikula edo dokumental bat aukeratzeaz gain, kasu erreal bat aukeratzeko aukera ere bageneukala. Gure kasuan, hasieratik hitz egin genuen eta pentsatu genuen, kasu errealak aberasgarriagoa izango zela, baina, denbora aldetik lan karga handiagoa izango zela. Hori dela eta, pelikula baten inguruan egitea lana erabaki genuen. Pelikula ezberdinen inguruko ideia zaparrada egin ondoren, Precious pelikula hautatu genuen. Nik neuk ikusita nuen pelikula lehenagotik eta taldekedeei

esan nien pelikula ona iruditzen zitzaidala horrelako lan bat egiteko. Hala, taldekide guztiak pelikula ikusteko konpromezua hartu genuen eta behin denok ikusita geneukala, honen inguruan hitz egin genuen.

Momentu honetan, taldekide guztiok bertan izanik, pelikula egokia zela pentsatu genuen eta horrela ekin genion lanari. Lanaren prozesua ondo eramane dugula uste dut, baina, esan beharra daukat momentu batzuetan beste lan batzuei eman diegula preferentzia eta horrek, lana bukaeran egiten ibiltzea ekarri digula.

Taldekideen arteko harremanari dagokionez, aurreko urteko taldekide berdinak elkartu gara eta honek, alde on eta txarrak dituela uste dut. Izan ere, konfiantza eta talde kohesioa guztiz beharrezkotzat ikusten ditut talde lan on bat egiteko, baina, bestalde pertsona berriak eta ideia berriak ere guztiz beharrezkoak dira. Gainera, oraingo lauhilabeteko kasuan, taldekide bat ikasketa ez presentziala egiten aritu da eta horrek ere eragin digula esango nuke. Izan ere, momentu askotan lana banatuta egiten aritu gara. Hala ere, esan beharra daukat guztion artean oso ondo koordinatu garela.

Lanari jarri diodan espektatibaren inguruan ere idatzi nahiko nuke. Hasiera batean, lana erraz eta simple ikusten nuen eta ondorioz, taldean komentatu eta adostu genuen lan teorikoaz gain, bideo bat egitea. Bertan, gu geuk planteatutako esku-hartzea antzetzuko genuen. Ideia oso polita iruditu zitzaigun, baina, asteak aurrera joan ahala bideoa egitearen ideia alde batean uzten joan gara eta azkenean, ez dugu ezer egin. Orain, hau idazten ari naizen momentu honetan, esan beharra daukat pena eman didala bideoa ez egiteak. Hala ere, ez diot gure buruari larregi exijitu nahi eta ondo ikusten dut ez egitea, izan ere, lau hilabete zehar lanez lepo ibili gara.

Amaitzeko, nire buruari begiratu, esan beharra daukat 100%-a ez dudala eman, baina oso parte-hartzaile ibili naizela. Momentu batzuetan astuna egin zait, gogo gabe ibili naiz, baina hala ere, aurrera egin dugu eta emaitzarekin gustura sentitu naiz. Hurrengo baterako, hobetzeko zer dudane ere ikasi dut eta horien artean antolakuntza dagoela esango nuke. Hau da, lanaren prozesua hasierako momentutik hobeto antolatu beharko genukeela uste dut, ez azkenengo momentuan soilik. Gainera, hasieran ezarritako helburuak, guztion egoerarekin eta motibazioarekin koherenteak izan behar dituztela uste dut eta hauek lortzeko bideari gogotsu ekin behar diegula, konfiantzaz eta beteko ditugunaren esperantzaz.

MAIDER USANDIZAGA ALTUBEREN BALANTZEA:

Bigarren mailako lehenengo lau hilabete honetako DILAN-a Precious filmean oinarrituta burutu dugu. Erabaki honetara heltzea asko kostatu ez zitzaigula esango nuke; izan ere, batetik, hasiera hasieratik garbi eduki izan genuen kasu erreal bat baino, filmean oinarrituko ginela, eta bestetik, film guztien artean, guztien aholkua Precious pelikula ikustea izan bai zen (bai irakasleena, baita gure taldekide batena ere).

Aipatu beharra daukat, filma ikusi eta lanari ekin genion unean, gogotsu ekin niola lanari; izan ere, filma asko gustatu zitzaidan eta lanean zer aipatu bazeukala iruditu zitzaidan. Halere, denbora aurrera joan ahala eta gainontzeko ikasgaietako lanak gehitzen joan ahala, DILAN-ean beherakada txiki bat eman genuela iruditzen zait; hau da, hein batean, DILAN-a baztertu eta gainontzeko ikasgaietako lanei preferentzia eman diegulakoan nago.

Horretaz gain, taldekide bat egoera bereziko ikasle izateak ere eragin izan duela iruditzen zait; hau da, ez presentzialeko ikaslea taldean izateak eragina izan duela uste dut. Izan ere, egutegian DILAN klaseak ditugula jartzen zuen egunetan etorri izan da talde lana aurrera eramatera eta zenbaitetan, gertatu izan zaigu irakasleek momentuan bertan aldaketaren bat egin eta DILAN klasea egin beharrean, klase hori beste zerbaitetarako erabiltzea, kontuan hartu gabe gure taldekidea DILAN-a egitera etorri dela. Beraz, gure artean elkarrekin lan egiteko zenbait zailtasunekin aurkitu garela esango nuke.

Halere, oztopo guzti hauekin aurkitu izan garen arren, gure arteko harremanari eta talde-kohesioari esker, zailtasunei aurre egin eta lanari forma ematen joan garela esango nuke.

Bestalde, lan hau batzuetan astun xamarra iruditu zaidan arren, oso interesgarria iruditu zaidala esan behar dut, profesional ezberdinak eta hauen funtzio nahiz betebeharrak zeintzuk diren ikusteko beta edukitzeaz gain, hezkuntza erakunde ezberdinak ezagutzeko aukera ere eman baitugu; besteak beste, hezkuntza alternatiboko eskola. Gainera, pedagogo nahiz gizarte hezitzaile gisa, etorkizun batean, horrelako kasuren bat landu eta esku hartzea egokitzen bzaigu, eredu gisa erabil dezakegulakoan nago.

Beraz, lanean zehar motibazioaldi ezberdinak izan ditugulakoan nago; hau da, gorakadak et beherakadak izan ditugula. Hori dela eta, gehiago eman nezakeenaren sentsazioarekin geratu naiz, baina orokorrean lan ona egin dugula esango nuke, bukaerako emaitzarekin nahiko gustura sentituz.

AINHOA AIRA CALEROREN BALANTZEA:

Lauhilabete honetan esleitu zaigun eta ikasle gehienok egin dugun DILAN lanarekin nire gorabeherak izan ditut. Lehenik eta behin, esan beharra daukat nire nahia zela hasieratik kasu erreal bat egitea, eta lehengo urtean taldekideok lana egiterako orduan, hartzen genuen inplikazioa, ardura eta motibazioa ikusirik, kasu erreala aurrera eramateko prest egongo ginela pentsatzen nuen. DILAN aurkazpenaren ostean, denek nik izan ezik, pelikularen azterketa egitea nahiago zutela konturatu nintzenez, asko desmotibatu nintzen. Pelikula baten azterketa egitea niretzat tontakeria bat eta ezertarako balio ez zuen zerbait zen. Egiteagatik egiteko lan bat, unibertsitatean momentu askotan egiten ditugu horietako bat besterik ez.

Precious pelikularen azterketa egingo genuela erabaki eta hau ikusi ostean, piska bat gehiago motibatu nintzen, izan ere, pelikulak lantzeko gai interesgarri eta polemiko ugari zituela ikusi nuen. Lana amaitu ondoren, prozesu osoaren balantzea egiten badut, konturatzen naiz taldekide guztiok oso lanpetuta egon garela, eta agian ez diogula behar bezain beste denbora eta inplikazio eskaini lan honi. Bestalde, lan karga banatzeko beharra sentitu dugu eta DILAN-ean egin ditudan aportazioak xumeak izan direla uste dut, bai nire denbora faltagatik eta baita nire motibazio faltagatik ere. Aurreko urtean baino nahasiago ibili garen arren, talde-kohesio handia dugu, eta baita konfiantza handia ere. Modu honetan, lan pisutsu hau aurrera ateratzeko gai izan gara hala moduz. Betidanik sentitu izan naiz oso gustura nire taldekideekin eta momentu batzuetan denok gogorik gabe jardun dugun arren, lana amaitzea lortu dugu. Badakit, lana askoz hobetagoa izan litekeela, baina gure helburu bakarra hau amaitzea zen.

Laburbilduz, nire motibazioa eta lana baldintzatu duten barne- nahiz kanpo-faktore ugari egon dira eta ez naiz oso gustura sentitzen nire aportazioekin. Baina hala ere, zorte ikaragarria dudanez talde honekin, ondo antolatu gara eta aurrera egitea lortu dugu.

IZAR ELORZA ISAZELAIAREN BALANTZEA:

III.Moduluko Dilan honetan, kasu erreal edo pelikula batean agertzen den estimulu bat aukeratu behar izan dugu eta ondoren, horren inguruko lanketa bat egin. Gure kasuan, denon artean Precious pelikularen inguruko lanketa egitea erabaki genuen ondo pentsatu eta gero eta egia esan behar badut ere, aukeraketa aproposa egin genuelakoa nago.

DILANean bizi izan dudana prozesua aurreko moduluetakorekin alderatuz alde batetik antzekoa izan dela esan dezaket baina aldi berean desberdina. Nire kasuan, aurreko modulu hau modu ez presentzialean egin behar izan dut eta horrek eragin du DILANean bizi izandako prozesua desberdina izatea. Hasteko ez naiz klasetara egunero joan eta horrek talde kohesioa nire aldetik apurtu duela igarri dut. Egia da DILAN zaio gehiengoetara joan izan naizela, ahal izan dudana neurrian eta ezin izan badut etxetik egin dut lana. Baina horretaz aparte, egutegiari begiratu eta DILAN saioa zegoen egunetan joan eta hiruzpa lau aldiz irakasleek azkenengo momentuan Idaketak egin eta beraien ikasgaiaren inguruko klase praktikoa eman dute. Beraz, momentu horietan nire taldekideak beste ikasgai bateko lan praktikoa egin izan zuten eta nik, bidaia aprobetxatuz DILAN a. Beraz, esan dezakegu, zailtasunak izan iza ditugula eta horrek talde lana desberdin egitea ekarri digula eta aurreko urteetan konparatuz, talde kohesioa momentu batzuetan faltan bota izan dudala.

Bestalde, DILANa teoriarik moduluak ditugun ikasgai guztien lanketa bat egiteko aukera da baina errealitatean oso zaila ikusten dut hau. Gainera, egoera erreal edo pelikula bat aukeratu behar izan dugunez oraindik zailagoa egin zait.

DILAN egiten gauden bitartean, pertsonalki, momentu oro gauza berdina idazten geundela sentitu dut, eta ikasgai batzuk beste batzuk baino gehiago landu ditugulakoan nago baina aurretik esan dudan bezala, hau pelikulan ageri diren egoerengatik gertatu da.

DILANa egiten hasi ginen momentuan, pelikula ikusi ondoren lantzeko gai asko ikusten nituen eta egia esan behar badut ere, larritu egin nintzen. Baina orain, lana bukatuta ikusten dudanean lan polita geratu zaigulakoan nago. Pelikula lantzeko aproposa dela uste dut eta Gizarte Hezitzaile askok ikusi beharrekoa.

Pena, gure kasuan nahi genuen lan praktikoago bat ez egitea denbora aldetik juxtu xamar ibili garelako, askotan uste baitut, lan praktikoekin askoz ere gehiago lantzen dela lan teoriko batekin baino. Gure kasuan, bideo batekin pelikularen inguruko lanketa egitea nahi genuen baina esan bezala, tamalez, ezin izan dugu egin.

5. BIBLIOGRAFIA:

- Pichardo A, (23 de diciembre de 2010). Intervención Educativa: *Precious*. Eskuragarri: <http://intervencionana.blogspot.com.es/2010/12/precious.html>
- KiVa Anti-Bullying Program (d.g.). KiVa school: *Let's make it together!* . Finlandia: University of Turku and the Finnish Ministry of Education and Culture. Eskuragarri: <http://www.kivaprogram.net/>
- Promove Consultora e Formación SLNE (2012). Cuadernos Prácticos de Gestión. *Cómo elaborar el análisis DAFO*. Santiago de Compostela, España: C.E.E.I Galicia, S.A. (Bic Galicia).